

'Gure bide galduak', antzerkiak euskal historiari keinu

Dejabu konpainia bere antzezlan berria aurkezten ari da euskal eszenatokietan, Franco hil osteko urte gogorak islatzen dituena

UXUE RAZKIN

Besteak beste, Uhubilen, Hendaian, Bermeon, Gernikan nahiz Bilbon ikusgai izan da 'Gure bide galduak'. Azken saioa Galdakoron eurreitxuri dute, hilaren 30ean. DEJABU

FRANCO hil ondorengo urte gogorretan grotua dagoen istorioa. Gizarte eredu berri bat posible zela ahalbidezen zuen garaia. Eta urte horietan gertatutako hainbat gorabehera salatze beharra, noski. Horiek dira Dejabu taldeak jarraitu dituen lidoak *Gure bide galduak* antzezlanaren sortzeko. Duela hiru urte murgildu ziren istorio honen sortze-lanean. Euskal Herriko zenbait eszenatokietan biran izan dira berriki, iraganeko istorioak kontatzeko asmotan eta, bide batez, garaiko egoerak salatze beharrean. "Bost aktore eta zuzeneko gitarra-jotzaile bat elkarrekin igotzen gara oholtzara, komediak eta tragediak ia bat egiten duten istorio hunkigarri bat kontatzen", azaltzen du Amara Gurrutzagak, Dejabu konpainiako aktoreak eta antzerki zuzendariak.

Esan bezala, duela hiru urte jarri zuten martxoan *Gure bide galduak* proiektua. Gurrutzagaren esanetan, antzerki maila batetik begiratu, konpainia bezala sentitu zuten gai "oso mamitsuak" zuzendala gara horretan, eta ez zirela soilik nostalgiaz begiratze gaiak, baizik eta gogoeta egin eta etorkizunerantz begiratzeak. Hala, gara horretako Euskal Herriko gorabeherak islatzen dituen istorioa garatzen hasi ziren. "Kaosetik ordenerako bidea" bezala definitu du haien antzezlanaren sortzeko bideratzen duten lan prozesua. "Gure lan prozesuak luzeak dira, jorratu dugun gaiari buruzko dokumentazio lan handia egiten dugu", azaltzen du aktoreak. Lido horretatik, era kolektiboan lan egiten dutela dio eta laborategi gisa funtzionatzen dutela gaineratzen du; hau da, "gauza ezberdinak probatuz eta baztertuz, gure ustez kontakizunaren atzean dagoen poetika topatu arte".

Katalin du protagonista Dejabuko azken antzerki honek. Nafarroako herri txiki batetik, gara horretan Donostian zegoen eskola batera abiatuko da neska, magisteritza ikasketak gauzatera. Era berean, urte horietako giroak berak planteatuko dituen gorabeheren berri izango du publikoak. "Esaterako, euskararen aldeko mugimenduarekin egingo du topo protagonista, baina langile borroka eta mugimendu politikoarekin ere", dio aktoreak. Horrez gain, urte horietan jatzotako zenbait egoera salatze "beharra" ere

ELUSKAL HERRIKO MUGAK GAINDITUZ

Egun, Dejabu talde Euskal Herrian emanaldiak eskaintzen ari den orren, gara batean "asko" bidaltzen zutela gogora ekarri du Gurrutzagak. Ekuadorren, Senegal, Saharako konpartentuetan eta Bosnian izan da antzerki Dejabu konpainia. Hala, ber, konpainiaren antzezlanak sarri jaso dute. Aipatzekoak dira "Gizona ez da boria" antzezlanarekin Subotican (Serbia) eta Pragari (Txekiar Errepublikan) 2009 eta 2010 urteetan jokatutakoak, alegia, "kuriosoa da baina zalagarria izan da emanaldiak egiteko aukera Euskal Herrian izatea". Antzerki honetan sortu dituzten antzezlanak Euskal Herrian eskaintzeak izan dira eta hortaz, "oso pozik" dardela aitortu du. Finean, herren eskaintzeko parada izan dutelako, Baina Gurrutzagak argi dauka zeri den etorkizuneko aintza: "Aukera badugu itzuliko gara bidaltzera, plazer handiz".

izan dutela aitortu du eta adibidea alpatzen du tartean: "1976ko martxoaren 3an poliziak Gasteizen eginiko hilketak, oraindik ez baitute epailetarik izan".

Dejabu konpainia 2001. urtean sortu zuten, Hasiera batean, Urko Redondorekin batera txotxongiloen munduan sakontzeko helburuarekin abian jarri zuten egitasmoa Gurrutzagak. Ondoren, beste helburu batzuk gehitu zitazkion; hala nola, antzerkiaren sakontzeko eta kontatuak izatea meretz dituen istorioak oholzara eramateko nahia. Hamaika urte igaro dira konpainia abian jarri zutenetik. Jakina da hainbat urte talde bezala mantentzea erronka handia dela. "Antzerki konpainia bat aurrera ateratzen oso zaila da gaur egun", aitortzen du.

Taldea mantentzeko zailtasunak dagokienez, dirua eta ballab-

de falta alpatu ditu. Azken honetan, entsuguetarako espazio libreen falta azpimarratu nahi izan du. Horretaz gain, babes handirik ere ez dagoela dio: "Maiz korrontearen kontra zoazonaren sentipena daukagu". Hala ere, eta arazo horiek bizkara emanez, aurrera jarraitzeko beste irtenbide batzuk bilatzen dituzte. Izan ere, konpainiako kideen artean eta beste konpainiakoekin ere solidaritate, babes eta elkar laguntza sare bat dutela adierazi du.

Oro har, zailtasunak egon, badira, eta antzerki talde honek ere, bereak pairatu ditu. Gurrutzagaren abuzuz, zailtasun handienak "bajoi" garaiki abuzuz direla azaltzen du: "Animoz neketa sentitu izan garenean, hainbeste esfortzu egin eta ikusten duzenean ezin duzala zure lana erakutsi, ez zaudelako zirkuitti jakin batzuetan... zure buruari galdetzen diezu meretzio duen jarraitzeak". Edonola ere, gorabeherak pairatu arren, "talde bezala elkarrekin gaudela sentitzen dugu", dio, eta gaineratzen du: "Horrek munduko diru guztiak baino gehiago balio du". Zailtasunek, hortaz, ez dute Dejabu konpainia geldiarazi. Hasi zuzenetik orain arteko ibilbideaz mintzatu da Gurrutzaga: "Sakonago joan ahal izateko aukera izan dugu denbora honetan eta batez ere bidaiakidarekin, beste artistekin, hartu eman elerrak izan ditugu eta pila bat ikasi dugu".

ORAINA ETA ETORKIZUNA *Gure bide galduak* antzezlanaren berrienaz gain, beste proiektu batzuk dituzte esku artean. "Ez gara geldituko", baieztatzen du, Mikelazulo kultur elkarteko kide dira eta bertan duela lau urtetik Eztena antzerki jaialdia (Errenterian) antolatzen dutela azaltzen du. Hala, ber, beste antzerki eta dantza taldeekin ere aritzen dira kolaborazio lanetan: eszenografia, jantziak, zuzendaritza eta abarretan. Honekin batera, eta etorkizunari lekua utziz, negu honetan helduentzako lan berri bat prestatzen hasiko direla azaldu du. Gainera, 2009. urtean sortutako *Gizona ez da txoria* antzezlanaren paperera eramateko asmoa dutela ere iragarri du. Horretan, Maite Gurrutzaga marrazkigilearekin lanean ari dira jada.

Erreterian ezarritako konpainiako haurrentzako obra bat dalarik abenduan. CEASU

